

Prentsa oharra

Nota de prensa



UDALAK EMAUSEN ZERBITZUA BERRESKURATU DU TAMAINA HANDIKO HONDAKINAK ETXERA JASOTZEKO

- Zerbitzua Intxaurrondo, Loiola eta Martutene auzoetan ematen da.

Donostiako Gobernuak bihar onartuko du Emausek Intxaurrondo, Loiola eta Martutene auzoetan egin duen altzariak eta tamaina handiko altzariak etxez etxe jasotzeko zerbitzua berreskuratzea.

Marisol Garmendia Ekologia zinegotziak adierazi duenez, "pandemia dela eta zerbitzu hori apirilaren hasieran bertan behera utzi ondoren, orain urtebeteko luzapenaren bidez ekingo diogu zerbitzuari, etxez etxeko bilketa selektiboarekin jarraitzeko, eta zerbitzu horrek onarpen ona izan du auzotarren aldetik".

Garmendiaren esanetan, etxez etxeko bilketa zerbitzua "erosoagoa da, batez ere adinekoentzat. Doakoa da, tresna zaharrak bide publikoan gordetzea saihesten du eta, gainera, horiek berrerabiltzea sustatzen du Emausen instalazioetan berreskuratuz eta aprobetxatuz, bertan sailkatu eta prestatzen baitira gero berrerabiltzeko. Horrela, hondar zaborra murriztu eta ekonomia zirkularra indartuko da", adierazi du Ekologia zinegotziak.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Emausi 2020ko otsailaren 1ean sinatu zitzaion hasierako kontratua, baina pandemiaren ondorioz bertan behera utzi behar izan zuten, etxean kontakturik ez izateko. Kontratua amaitzear dagoenez, 164.583,15 euroko urteko luzapena onartu da.

Etkez etxeko gaikako bilketa egin daitekeen objektuen artean daude altzariak, aulkiak, sofak, etxetresna elektrikoak, koltxoak, lanparak, liburuak, sukaldeko objektuak, tresna elektrikoak edo jostailuak, besteak beste.

Intxaurrondon fase esperimental bat egin ondoren, Udalak Emausekin adostu zuen Loiola eta Martutene auzoetara zabaltzea. Emauseko langileek, behar bezala identifikatuta, etkez etxeko bilketa-zerbitzua ematen dute astelehenetik ostiralera, 08: 00etatik 20: 00etara, eta larunbatetan 16: 00ak arte soilik. 943 630 999 telefonora dei daiteke, edo posta elektronikoz, voluminososdonostia@emaus.com